



**2012KO ABENDUAREN 14KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko abenduaren hamalauan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko azaroaren 16an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 70 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEI EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST (29.720,95 €)tako onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 12-11-01 zbk.dun esped.: bere egoeraren hobekuntza dela eta, astean 5 orduetik 2 ordura zerbitzua murriztea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

**Entitateei dirulaguntzak.-**

Honako dirulaguntzak ematea entitateei 2012. urtean:

- Odol emaileak	1.317,00 €
- Gurutze Gorria	3.510,00 €
- Gizakia Helburu	1.100,00 €
- Nagusilan	74,60 €

**Orobione Jubilatuta eta Pentsiodun Elkarteari dirulaguntza.-**

Orobione Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarteari 6.724,65 € ematea 2012 urteko ekintzen garaperako eta 87,00 € ematea Hitzaren harpidetzarako.



#### IV.- KOMUNIKAZIOKO DIRULAGUNTZAK .-

Komunikazio eta Partehartze Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin honako akordioak hartu ditu:

Hitza egunkaria.- HITZari, biztanleko bi euroko dirulaguntza emateko izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, 2012 urteari dagokion dirulaguntzaren bigarren erdia ordaintzea, hau da, BOST MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (5.450 €) EURO.

#### Goierrri Telebistari dirulaguntza.-

Goierrri Telebistarekin, biztanleko bi euroko dirulaguntza emateko izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, 2012 urteari dagokion dirulaguntzaren bigarren erdia ordaintzea, hau da, BOST MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (5.350 €) EURO.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke, is written over the seal.